



NPB 2026

Honakoak betetzeko
ARGIBIDEAK ETA ARAUAK:

NPB dirulaguntzak eskaera

**Laboreen eta bazka
azalaren aitortpena**

Honakoak betetzeko **ARGIBIDEAK ETA ARAUAK**:

NPB dirulaguntzak eskaera Laboreen eta bazka azalaren aitortpena

Nork egin behar du **ESKAERA BAKARRA**?

- **Nekazari aktiboa*** izateko baldintza betetzen duten nekazari eta abeltzainek. Horrez gainera, honako **baldintza** hauetako bat **bete behar dute**:
 - **Gizarte Segurantzaren afiliatuta egotea** norberaren konturako langile edo autonomo modura (nekazaritzako jarduera) eskaera bakarra aldatzen denean.
 - Gutxienez **sarrera guztien % 25 nekazaritzak** sortzea:
 - **Nahitaezkoa pertsona juridikoa** izanez gero.
 - Kasu hauetan **betetzat** joko da: nekazaritzako elikagaien kooperatiba, lurra erkidegoan ustiatzeko kooperatiba, nekazaritza eta abeltzaintza ustiapenerako lan elkartuko kooperatiba eta titulartasun partekatuko ustiategia.
- **Ondasun erkidegoak, sozietate zibilak**, jaso gabeko jarauntsiak eta jaraunsle erkidegoak: gutxienez bazkide edo erkideetako **batek bete behar du** aurreko baldintzetako bat.

Urte honetan Nekazaritzako Gizarte Segurantzaren norberaren konturako edo autonomoko (nekazaritza-jardueragatik) **alta** emanda nekazari aktibo izateko baldintza **betetzen ez duten nekazari berriek**, nekazaritza-jardueratik datozen **diru-sarrera guztien % 25** izan beharko dute gutxienez, eskaera egin eta hurrengo **2. zergaldian beranduenez**.

Hurrengo lehen eta bigarren zergaldietan, ezin izango dute aurreko urtean **5.000 euro** baino gutxiago jaso izanaren **salbuespenari** heldu, ezta nekazari aktiboaren betekizuna justifikatu ere, **Nekazaritzako Gizarte Segurantzaren RETA edo SETAn alta emanda**.

Nekazaritza-jardueran hasten diren nekazariak **ezin izango dituzte** beren eskubideak laga nekazari aktiboaren **baldintza betetzen** dutela justifikatzen duten **kanpainaren arte**.

Salbuetsita:

1. Aurreko urtean **5.000 eurotik beherako zuzeneko laguntzak** jaso dutenak.
2. Aurreko urtean zuzeneko laguntzarik jaso ez duten nekazariak, baldin eta ustiategi baten titulartasuna eskuratu badute modu hauetako batean:
 - a) **1. puntua betetzen duen ustiategiaren lagapena**.

* Jarduera nagusia ezin da izan salbuetsita daudenetako bat.

b) Titulartasun aldaketa jaraunspena, erretiroa edo lanerako ezintasuna dela-eta hirugarren gradura arteko ahaide baten alde, izena edo estatutu juridikoa aldatzea, **bat-egitea** edo **zatiketa**, baldin eta ustiategiak **1. puntua betetzen badu**.

Hauek eskatu daitezke:

- **Jasangarritasunerako errentarako oinarrizko laguntza (ABRS).**
- **Jasangarritasunerako errenta osatzeko birbanaketako laguntza.**
- **Nekazari gazteentzako errentarako laguntza osagarria.**
- Klimaren eta ingurumenaren aldeko erregimenak.
- **Nekazaritzarako lotutako laguntzak:** proteina plana, azukre erremolatxa, arazo bereziak eta ingurumen balio handia dauzkaten olibadiak eta fruitu lehorrak.
- **Abeltzaintzarako lotutako laguntzak:** behi ume-hazleak, zekorrek gizentzea jaiotzen diren ustiategian, zekorren gizentze jasangarria (gizendegiak), esnetarako behiak, haragitarako ardiak eta ahuntzak, esnetarako ardiak eta ahuntzak, ardiak eta ahuntzak larre gabe uztondoak, lugorriak eta barazki eta fruta hondakinak aprobetxatuz.

Landa garapenerako esku-hartze hauek eskatu nahi dituzten nekazariak:

- **Eragozpen naturalak** edo bestelakoak dituzten eremuetarako **laguntzak**, esaterako mendialdeetarako edo eragozpen natural handiak dituzten eremuetarako laguntzak.
- **Nekazaritza eta ingurumeneko konpromisoak** nekazaritzako sailetan:
 - Esnetarako behien arau teknikorako ekoizpen integratua.
 - Laborantza jasangarrirako.
 - Biodibertsitaterako erlezaintza.
- Nekazaritza **ekologikoa** ingurumena kontuan edukiz kudeatzeko konpromisoak.
- **Baliabide genetikoak** babesteko konpromisoak: Bertako animalia arrazak zaintzea.

Non izapidetu daitezke aitortpenak?

- Norberak egin dezake **modu telematikoan** web helbide honetan: <https://npb-pac.apps.euskadi.eus/SgaCac>
- Ustiategia edo horren nekazaritza azalera handiena dagoen probintzian edo autonomia erkidegoan.
- Eskualdeetako Nekazaritza Bulego egokietan (ENB), AURRETIK HITZORDUA ES-KATUTA.

Zenbat aitortpen aurkeztu behar dira?

Aitortpen bakarra nekazaritza ustiategi bakoitzeko.

Zer epealdi dago “Aldez aurreko hitzordua” eskatzeko?

Oro har, apirilaren 15era arte. Egun horretatik apirilaren 30era arte aldez aurreko hitzordua eskatu ahal izango da, baina azken egunetako eskaeren gehikuntza dela-eta **ezin dugu ziurtatu hautatu duzun ENBn arreta eman ahal izango dizutenik, ez eta eskaera egiteko aldian eman ahal izango dizutenik ere**. Beraz, eska ezazu lehenbailehen aldez aurreko hitzordua.

Nola eska daiteke aldez aurreko hitzordua?

- Modu telematikoan, honako esteka honen bidez: <https://hitzordua.araba.eus/eu/nekazaritza>.
- Telefonoz, **945 18 18 76** zenbakira deituta.

Zer epealditan aurkez daiteke aitorpena?

- Epealdia **2026ko otsailaren 1ean** hasiko da.
- Epealdia **2026ko apirilaren 30ean** amaituko da.

Zer gertatuko da aitorpena edo eskatutako dokumentazioa apirilaren 30aren ondoren gero aurkeztuz gero?

- Eskaerak aldatzeko epealdia amaitu arte laguntzen zenbatekoak **% 1 gutxituko dira pasatzen den egun baliiodun bakoitzeko**.
- Eskaerak aldatzeko epealdia (**maiatzaren 31**) amaitutakoan aurkeztuz gero, eskaera **ez da onartuko**.

Alda daitezke aitorpenak apirilaren 30etik aurrera?

- Maiatzaren 31ra arte.
- Monitorizazio bidezko kontrolak direla-eta jakinarazitako aldaketak abuztuaren 31ra arte.

Erants daitezke lurzati gehiago aldaketak egiteko aldian (maiatzaren 31ra arte)?

- Bai, banakako lurzatiak erants daitezke, eta beste esku-hartze batzuk ere sar daitezke (zuzeneko ordainketako edo landa garapena).

Egin daiteke atzera laguntza eskaera batean (osorik edo zati bat)?

- Bai, abuztuaren 31ra arte.

Aitortpenean herri basorik jaso daiteke?

- Bai, baldin eta basoa herritar guztiek erabil dezaketela frogatzen bada erakunde titularrak egindako ziurtagiri egokiaren bidez.
- Titulartasun publikoko larre iraunkorrak (mendi publikoak eta beste batzuk) ustia-tegiko bertako animaliak larratzearen bidez baino ezin dira mantendu.

Zer agiri aurkeztu behar da aitortpena izapidetzean?

I. ORO HAR

- Pertsona fisikoa izanez gero:
 - Ezkontidearen identifikazioa, eta, behar denean, ezkontzaren eraentza.
 - Ustiategiko buruaren datuak.
- Entitate juridikoa izanez gero: Legezko ordezkaria. Bazkideen izena, IFZ, jaioteguna eta partaidetza ehunekoa.
- Bankuko datuak, ordainketak jasotzeko.

II. LABOREEN AITORTPENERAKO

- Nekazaritza lurzati zerrenda, SIGPAC identifikazioarekin, kokalekua, landutako azalera (hektareak) erabileraren arabera, eta SIGPACeri dagokion azalera, labore mota (lehorrekua edo ureztatua).
- **Laborantza noiz hasiko den eta noiz amaituko den** adierazi behar da.
- Lurzati edukitzaren araubidea:
 - Jabetza.
 - Gozamina.
 - Errentamendua edo partzuergoa: **1 ha-tik gorako** sailetan errentatzailearen edo partzuerraren IFZa adierazi behar da.
 - Herri lurra: horren **ziurtagiria** aurkeztu behar da.
- **Nekazari batek ez badu aitortzen SIGPAC esparru bat osorik:**
 - Grafikoki zehaztuko da esparruko lurretatik zenbat dauden beraren esku.
- **Lurzati ureztatuturik aitortzen bada:**
 - Ureztatzaile elkartearen ziurtagiria, ur kontzesioa jasotzen duena.
- **Larre lurzatiarik aitortzen bada:**
 - Zer egiten den zehaztu beharko da: norberaren abereak larratu, belarra moztu edo beste teknika batzuen bidez mantendu. Gainera, laborantza zer urtetan hasi den adierazi behar da.

- Titulartasun publikoko larre iraunkorrak ustiatetik bertako abereak larratuz baino ezin dira mantendu.
- **Laborantzako lurzatirik** aitortzen bada: Lursaila eta kanpainako produktu bat baino gehiago aitortu ahal izango da.
- **Labore iraunkorrik** aitortzen bada:
 - **Laborantza hasi den urtea** zehaztu behar da, 2010a baino lehen hasi ez bada.
 - Lurren **estaldura nolakoa den** adierazi behar da, eta haietan **zer jarduera** egiten diren zehaztu.
- **TABAKO eta AZUKRE-ERREMOLATXAREN eremurik** aitortzen bada:
 - Barietatea adierazi beharko da.
- **ARTO eremurik** aitortzen bada:
 - Adierazi beharko da ereindako barietatea genetikoki eraldatua den ala ez.
- **PROTEINADUN LABORE eremurik** aitortzen bada:
 - **Barietatea.**
 - Adierazi beharko da ea lurzatia hazia ekoizteko den.
- **BARATZE, OLIBONDO ETA FRUTA ARBOLA sailik** aitortzen bada:
 - Baratze sailen kasuan, zer espezie jarriko den adierazi beharko da, baldin eta esparruaren azalera 0,1 hektarea baino handiagoa bada.
 - Olibondo eta fruta arbolen sailen kasuan, zer espezie eta zer barietate jarriko den adierazi beharko da, baldin eta esparruaren azalera 0,1 hektarea baino handiagoa bada.
- **KALAMU sailik** aitortzen badira:
 - Barietatea eta hektareako hazi kopurua (kg/ha) adierazi beharko da.
 - Hazien etiketa ofizialak aurkeztu behar dira, bai eta zuntza prozesatzen duen industriarekin sinatutako kontratua edo Sendagaien Espainiako Agentziaren laborantza baimena ere.
 - Etiketak, beranduenez, ekainaren 30ean aurkeztu beharko dira.
- **BARATZE LABORE, ENERGIA SORTZEKO LABORE, ARDOGINTZARAKO MAHAS-TI, ETA LOREAK eremurik** aitortzen bada:
 - Ekoizpena zertarako izango den adierazi behar da.
- **Ustiatetik lurzati guztiak** aitortu behar dira nahitaez.
- **Herri basoetako bazka eremuak:**
 - Datuak Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzuak onetsitako Baso Aprobetxamendurako Planetik aterako dira.
- **Lurzatien hautagarritasuna:**
 - Araudiaren arabera hautagarriak dira nekazaritza jarduera egiten den lurzatiak, eta nekazaritza jardueratzat honako hauek hartzen dira: nekazaritzako produktuak ekoiztea, haztea edo lantzea, uzta biltzea, abereak jeztea, abereak haz-

tea, eta nekazaritza eremuak bazkatzeko, larrerako edo laborantzarako egoera egokian mantentzea.

- Bost urtean jarraian mantentze lanak (lurra lantzea, belarra moztea, sasitzak kentzea...) aitortu diren lurzatiak ez dira onartuko, a priori, eta azken bost urteetan aitortu ez diren eremuak ere ez.
- **Onuradun guztiak baldintzen arauetan ezarritakoa bete beharko dute.**

A. LAGUNTZAK

1. JASANGARRITASUNERAKO ERRENTARAKO OINARRIZKO LAGUNTZA (ABRS)

- **ABRS jasotzeko eskubideen titularrentzat.**
- **Baliagarri dauden eskubide guztiak ordaintzeko** eskatu behar da. Ezin dira hautatu. Lagapen bidez edo Erreserba Nazionalaren bidez jasotako eskubideen aktibazioa adieraziko da.
- 2025ko kanpainan erabili ez diren eskubideak, 2026ko kanpaina honetan erabiltzen ez badira, kendu egingo dira.
- Ordainketen **muga eta murrizketa** gehikorra: **60.000 €-tik** gorako IEOL jaso dezaketei honako **murrizketa** hau aplikatuko zaie:
 - Laguntza 60.000 € - 74.999 € artekoa bada, % 25.
 - Laguntza 75.000 € - 89.999 € artekoa bada, % 50.
 - Laguntza 90.000 € - 99.999 € artekoa bada, % 85.
 - Laguntza 100.000 €-tik gorakoa bada, % 100.

Murrizketa aplikatu aurretik nekazariak aurreko urtean ordaindu eta aitortutako **lan kostuak** kendu ahal izango dira, zergak eta gizarte kotizazioak barne. Kostu horiek EBean aitortu beharko dira.

Laguntza jasotzen duena nekazaritzako elikagaien kooperatiba, lan elkartuko kooperatiba, lurra erkidegoan ustiatzeko kooperatiba, ENSa edo titulartasun partekatuko ustiatetia bada, murrizketa banaka kalkulatu eta aplikatuko zaio entitateko kide bakoitzari.

2. ABRS OSATZEKO BIRBANAKETAKO LAGUNTZA

- **ABRS jasotzeko eskubideen titularrentzat.**
- Ordainketa bat urtean **lehen hektareangatik** eskualdeko azalerako **2 atalase arte-
ren arabera**.
- Laguntza jasotzen duena nekazaritzako elikagaien kooperatiba, lan elkartuko kooperatiba, lurra erkidegoan ustiatzeko kooperatiba, ENSa edo titulartasun partekatuko ustiatetia bada, laguntza banaka kalkulatu eta aplikatuko zaio entitateko kide bakoitzari.

3. KLIMAREN, INGURUMENAREN ETA ABEREEN ONGIZATEAREN ALDEKO ERREGIMENAK (EKORREGIMENAK)

- Laguntza jasotzen duten jardunbide hauek **borondatezkoak** dira.
- **Ez dago ABRsrik jasotzeko eskubidea eduki beharrik, honako ekorregimen hone-tan izan ezik: biodibertsitatea laborantza lurretan eta laborantza iraunkorren.**
- Ordainketa bat urtean ekorregimen batean jasotako jarduera baterako erabiltzen den hektarea bakoitzeko.
- Dirulaguntzarako onartzen den hektarea bakoitzeko laguntza bat bakarrik jaso ahal izango da, bertan egiten diren jarduerak gorabehera.

3.1. LARREETAKO EKORREGIMENAK

- **Abeltzaintzako ustiategien titularrentzat.**
- **Larre iraunkorren** eta **aldi baterako** larreen azalerak.
- **2 ekorregimen: Larre hezeak** (Araba osoa, Arabako Errioxa izan ezik) eta **larre mediterraneok** (Arabako Errioxa).
- **2 jarduera: Artzaintza estentsiboa edo biodibertsitate uharteak edo belar mozte jasagarria.**

3.1.1. ARTZAINZTA ESTENTSIBOA

- Aitorpenean **jarduera "artzaintza"** ezarrita duten eremuak.
- Maiatzaren 31n REGAn **behi, ardi, ahuntz, zaldi edo txerri aziendekin** inskribatu-tako ustiategiak, mota "Ekoizpena eta ugalketa" ed "Larrea" dela.
- **Behi azienda:** Sailkapen zooteknikoa "Haragitarako azienda ugaltzea", "Esneta-rako azienda ugaltzea" edo "Ekoizpen mistorako azienda ugaltzea" edo "Txahalen hazkuntza". Gainera, ustiategia estentsiboa edo erdi-estentsiboa izan behar da.
- **Ardi azienda eta ahuntz azienda:** "Haragitarako azienda ugaltzea", "Esnetarako azienda ugaltzea" edo "Ekoizpen mistorako azienda ugaltzea".
- **Zaldi azienda:** "Haragitarako azienda ugaltzea" edo "Ugaltze mistoa".
- **Txerri azienda:** Ekoizpen sistema estentsiboa edo mistoa.
- Baldintzak:
 - **Abereak larratzea gutxienez 120 egun urtean**, jarraian zein aldika.
 - **Gutxienerako eta gehieneko abere kargak:**
 - **Larre hezeak: 0,4-2 ALU/ha.**
 - **Larre mediterraneok: 0,2-1,2 ALU/ha.**

ALUetara bihurtzeko taula

Behi azienda	Urtebete baino gutxiago	0,4
	Urtebetetik 2 urte bete arte	0,7
	Zekorrak, 2 urte edo gehiago	1,0
	Txahalak, 2 urte edo gehiago	0,8
	Esnetarako behiak, 2 urte edo gehiago	1,0
	Haragitarako behiak, 2 urte edo gehiago	0,8
Ardi azienda eta ahuntz azienda		0,10
Zaldi azienda		0,8
Txerri azienda	Txerrikumeak, 20 kg-tik behera bizirik	0,027
	Txerramak, 50 Kg-tik gora	0,5
	Beste txerri batzuk	0,3

- Ustiatetik abere guztiak larratuko ez badira, eskaeran zehaztu behar da **zenbat abere larratuko diren espezie eta kategoria bakoitzeko**.
- Nekazariak erabilera mota bereko larre lurzatiak elkartu ahal izango ditu.
- Larre-lursailen multzo bakoitzean larratze-jarduera hasteko eta amaitzeko aurreikusitako datak EBean adieraziko dira. Benetakoko datak 15 egun baino gehiagotan aldatzen badira, jakinarazi egin behar da.
- **Herri larreetan**, jarduerarako azalera banaketan esleitutako azalera osoa izango da, eta larratzea **gida** bidez egiaztatuko da.

3.1.2. BIODIBERTSITATE UHARTEAK EZARTZEA EDO BELAR MOZTE JASANGARRIA

- Aitorpenean jarduera **“moztea”** ezarrita duten eremuak.
- Maiatzaren 31n REGAn **behi, ardi, ahuntz edo zaldi aziendarekin** inskribatutako ustiategiak, mota **“Ekoizpena eta ugalketa”** dela.
- **Behi azienda:** Sailkapen zooteknikoa **“Haragitarako azienda ugaltzea”, “Esnetarako azienda ugaltzea”** edo **“Ekoizpen mistorako azienda ugaltzea”** edo **“Txahalen hazkuntza”**.
- **Ardi azienda eta ahuntz azienda:** **“Haragitarako azienda ugaltzea”, “Esnetarako azienda ugaltzea”** edo **“Ekoizpen mistorako azienda ugaltzea”**.
- **Zaldi azienda:** **“Haragitarako azienda ugaltzea”** edo **“Ugaltze mistoa”**.
- Biodibertsitate uharteak ezarri gero, ustiategi osoan ezarri behar dira. Beraz, jarduera honi helduz gero, ezin heldu izango zaio belar mozte jasangarriari.

3.1.2.1. Jarduera: Biodibertsitate uharteak

- Mozten diren larreen azalera osoaren **% 4 moztu gabe** uztea. Paisaiako elementuak kontuan hartzen dira.
- Uharteetan **ezin da egin nekazaritzako jarduerarik urtarilaren 1etik abuztuaren 31ra bitartean**.

- Abuztuaren 31tik aurrera nekazaritzako jarduera hauetako **bat egin behar da**:
 - Artzaintza norberaren abereekin.
 - Ekoizpenerako edo mantentze-lanetarako moztea.
 - Beste mantentze jardueraren bat **herbizidarik erabili gabe**.
- Moztu gabeko eremuak zer lurzatitan utziko diren zehaztu behar da. Urtez urte aldatu daitezke.

3.1.2.2. Jarduera: Belar mozte jasangarria

- Honakoaldi hauetako batean eskatzaileak aukeratutako azalera **ez aprobeztatzea**:
 - **Ekainaren 1etik uztailaren 31ra arte**.
 - **Uztailaren 1etik abuztuaren 31ra arte**.
- **Gutxienez sega-jarduera bat egin behar da ekoizpenerako** estazio begetatibo nagusian, **urtean** gehienez **3 aldiz**, urtarrilaren 1etik hartzen den ekoizpen-aldia hasi arte.
- Ahal dela, hobe belarra ontzea siloratzea baino, batez ere Natura 2000 sarean.

3.2. LABORANTZA LURRETAKO EKORREGIMENAK

- **3 ekorregimen: Lehorreko laborantza lurrak** (Arabako Errioxa), **lehorreko laborantza lur hezeak** (Araba osoa, Arabako Errioxa izan ezik) eta **ureztatutako laborantza lurrak** (2026ko kanpainan ureztatutako laborantza lur modura aitortutako eremuak edo, **onuradunak eskatuta**, aurreko hiru kanpainetako batean ureztapenarekin ustiatutakoak 2023, 2024 eta 2025).
- **2 jarduera**: Laboreak txandakatzea eta zuzenean ereitea.
- **Lekadun** baten ondoren **lugorri** deklaraturako azalera ez da kontuan hartuko **txandakatze-ehunekoaren** ondorioetarako.

3.2.1. LABOREAK TXANDAKATZEA

- Urte batean sailaren azaleraren % **50ean gutxienez** landutako **laborea aldatu behar da** hurrengo urtean. Bigarren mailako laborea lantzen bada, kontuan hartu behar da txandakatzeko. Aurreko ehunekoa % **25era murriztu daiteke** baldin eta sailaren azaleraren % 25etik gora urte anitzeko espezieak lantzeko erabiltzen bada.
- Sailaren azaleraren % **10ean hobekuntzako espezieak** landu behar dira.
- Sailaren azaleraren % **5ean lekadunak** landu behar dira. Ongarri berdea zilegi da, baina lurrean mantendu behar da loratzen hasi arte.
- Ustiatetikoko laborantza sailaren azalera **10 ha-tik gorakoa ez bada**, jarduera hauetako bat izan daiteke, eta ez dago hobekuntzako espezierik landu beharrik:
 - Ezarritako **txandakatzea** egitea.
 - **Bi labore lantzea**, nagusiak aitortutako azaleraren % 75 baino gehiago hartu gabe.

- **Urte anitzeko** espezieak dirulaguntzarako onartuko dira, baina ez dira kontuan edukiko txandakatzearen ehunekoa zenbatzean, lehen urtean izan ezik.
- Hobekuntzako espezieak:
 - **Lekadunak:** Ilarrak, babak, zalkea, eruak, aixkolak, ailorbea, alpapa, astorkia, indaba, txitxirioa, dilista, soja, hirusta... Beste batzuekin nahastu daitezke, baina lekaduna izan behar da nagusi.
 - Kruziferoak: **Koltza**, ziapea...
 - Konposatuak: **Ekilorea**, kartamoa.
 - Liliazeoak: Baratxuria.
 - Papaverazeoak: Adormidera.

3.2.2. ZUZENEAN EREITEA

- Laborantza lurren % **40an** gutxienez:
 - **Ezin da goldatu.**
 - Uztondoan gainean erein behar da, lurra urte osoan estalita egon dadin.
 - **Laboreak urtetik urtera txandakatu behar dira**, urteko anitzeko laboreak landatu ezean. Bigarren mailako laboreak lantzen bada, kontuan hartu behar da txandakatzeko.
- **25 €/ha-ko osagarria** ordainduko da **jarduera hau eremu berean** egiteagatik. Lurzati berrietarako, hurrengo urtean praktika errepikatzeak konpromisoa betetzearen arabera izango da osagarria. Gainerako kasuetan, ordainketa egiteko baldintza izango da aurreko kanpainen hektarea berean zuzenean erein izana egiaztatzea.

3.3. ZUREZKO LABOREEN EKORREGIMENAK

- **SIGPACen** maldaren arabera **3** ekorregimen daude:
 - **Lur lauak:** malda % **5etik** beherakoa.
 - **Malda ertaineko lurrak:** malda % **5** edo hortik gorakoa eta % **10etik** beherakoa.
 - **Malda handiko lurrak eta zapaldak:** malda % **10** edo hortik gorakoa.
- **2** jarduera: Landare estalki naturala edo ereina; inausketa hondarrezko estalki ihartua.
- **Mahastien** kasuan, laguntza hau jaso nahi izanez gero, ezin da eduki **legez kontra** edo baimenik gabe landatutako sailik ustiatetikiko mahasti-azalaretan.
- **Boilurra eta lupulua** zurezko laboretzat hartzen da.

3.3.1. LANDARE ESTALKI NATURALA EDO EREINA

- Sailean landare **estalki naturala edo ereina** ezartzea edota mantentzea **urte osoan**.
- Landare estalkia **bizirik** egon behar da 4 hilabete, **abenduaren 1etik martxoaren 31ra arte**.
- Estalkiak baliabide mekanikoez edo **artzaintza bidez** landu behar dira.
- **Ezin da erabili herbizidarik** ez bestelako fitosanitariorik.
- Estalkiak moztu edo garbitu ondoko **hondarrak bertan utzi behar dira**.
- Kale bakoitzean estalkiak gutxienez adaburuen proiektzioaren **zabalera askearen % 40 hartu behar du**, 0,5 metro gutxienez.
- **Malda % 10ekoa edo handiagoa den** sailetan, zapaldetan izan ezik, estalkiaren gutxienerako **zabalera** aurrean adierazitakoa baino **metro bat handiagoa** izango da.
- Zurezko laborearen kalearen batez besteko zabalera 1,5 metro baino txikiagoa bada, estalkiak **osorik** hartu behar du.
- Estalkia ereingo bada, lurraren azala landu ahal izango da ereiteko.
- **25 €/ha-ko osagarria** ordainduko da jarduera hau **eremu berean** egiteagatik. Lurzati berrietarako, hurrengo urtean praktika errepikatzeke konpromisoa betetzearen araberakoa izango da osagarria. Gainerako kasuetan, ordainketa egiteko baldintza izango da aurreko kanpainan hektarea berean estalita egon izana egiaztatzea.
- **Lehorreko azaleretan:**
 - Sakonera txikiko **lan bertikalak** egin daitezke **apiriletik irailera** bitartean, biak barne.
 - **Ez du aplikatzen** estalkiak **bizirik** egon behar duen **gutxienerako aldia**.
 - **Txandakako kaleetan** estalkiak ezartzea baimentzen da.

3.3.2. INAUSKETA HONDARREZKO ESTALKI IHARTUA

- Inausketa hondarrak **birrintzea** eta lurraren gainean uztea azpiak egiteko.
- Estalki ihartua kanpainako **apirilaren 15erako ezarri** behar da. Kale bakoitzean estalkiak gutxienez adaburuen proiektzioaren **zabalera askearen % 40 hartu behar du, 0,5 metro gutxienez**. Malda % 10ekoa edo handiagoa den sailetan, zapaldetan izan ezik, estalkiaren gutxienerako zabalera aurrean adierazitakoa baino metro bat handiagoa izango da. Zurezko laborearen kalearen batez besteko zabalera 1,5 metro baino txikiagoa bada, estalkiak osorik hartu behar du.
- **Ezin da erabili** tratamendu **fitosanitariorik**.
- Praktika hori esparru bereko landare-estalkiekin **konbinatu** ahal izango da. Praktika konbinatu horri estalki ihartuen zenbatekoa ordainduko zaio.
- Izurriterik egonez gero, jarduera hau ez da egingo, inausketa hondarrak izurritearen onurarako izan daitezke eta.

- **Lehorreko azaleretan:**
 - Sakonera txikiko **lan bertikalak** egin daitezke **apiriletik irailera** bitartean, biak barne.
 - **Txandakako kaleetan** estalkiak ezartzea baimentzen da.

3.4. EKORREGIMENA: BIODIBERTSITATEA LABORANTZA LURRETAN ETA LABORANTZA IRAUNKORREAN

- **ABRS eskubideak** (gutxienez bat) eduki behar diren ekoregimen bakarra da.
- **Biodibertsitate eremuen ehunekoa ezarri behar da:**
 - Ekojardunbide hau betetzeko aitortutako azalaren **barnean edo ondoan** dau-
den elementuak.
 - **Paisaiako elementuak.**
 - **Biodibertsitate lugorria.**
 - **Biodibertsitate bazterrak, zerrendak eta uharteak.**
 - **Zerealak, lekadunak, oleaginosoak eta usaintsuak biltzen ez diren eremuak.**

Onartutako lurren mota	Ehuneko
Lehorreko laborantza lurrak	7%
Ureztatutako laborantza lurrak	4%
Labore iraunkorrak	4%

- Onartutako 3 lur-motetatik 2 gutxienez badaude, biodibertsitate-espazioen bal-
dintza % 7rekin bete ahal izango da maila orokorrean.

• Paisaiako elementuak eta haztapan faktoreak

Elementua	Haztapan faktorea
Biodibertsitate lugorria	1,5
Biodibertsitate bazterrak	2
Terrazak	1
Heskaiak	2
Zuhaitz bakarra	2
Zuhaitz errenkada	2
Zuhaitz multzoa	1,5
Mugak	1,5
Urmaelak	1,5
Landaretza uharteak	1
Biodibertsitate uharteak	2
Harrizko hormak	1
Eraikuntza tradizionalak	1
Zerealak, lekadunak, oleaginosoak eta usaintsuak biltzen ez diren eremua	1

- **Ezin da erabili ongarririk ez fitosanitariorik, uzta biltzen ez den eremuetan izan ezik.**
- **Biodibertitate eremuen baldintzak:**
 - **Paisaiako elementuak:** Neurriak:
 - Heskaiak, mugak eta ezpondak: Zabalera, gehienez: 10 metro.
 - Zuhaitz multzoa: Azalera, gehienez: 0,3 ha.
 - Urmaelak eta landaretza uharteak: Azalera, gehienez: 0,1 ha.
 - **Biodibertsitate lugorria:**
 - **Urtarrilaren 1etik irailaren 30era bitartean, 6 hilean jarraian lurrak ezin dira laboratu.**
 - Lugorriak irailaren 1era arte iraun behar du.
 - **2 espezie** (zerrenda FEGAk argitaratzen du) nahasita **erein** behar dira. Ezin da bildu uzta.
 - **Erlauntzak** jar daitezke.
 - **Biodibertsitate bazterrak, zerrendak edo uharteak:** Animalia basatien onerako lurzatiez bazterretan ezartzen diren lur zerrendak edo haien barnean ezartzen diren eremuak.
 - Bi espezie erein behar dira; berez sortzen direnak ere egon daitezke, baina ereindakoak izan behar dira nagusi.
 - Ereindako espezieen helburua ezin da izan ekoizpena.
 - Irailaren 1era arte iraun behar dute.
 - Belar txarrak moztu daitezke eta baliabide mekanikoak erabiliz kontrolatu daitezke.
 - Ezin da erein espezie aloktonorik ez inbaditzaileak.
 - Biodibertsitate bazterrak ezar daitezke ibaien babes zerrendetan.
 - Neurriak:
 - **Bazterrak eta zerrendak:** Gutxienez 2 metro zabal eta 25 metro luze.
 - **Uharteak:** Gutxienezko azalera: 0,01 ha.
 - **Zerealak, lekadunak eta oleaginosoak bildu gabeko eremuak:**
 - Uzta ez da bildu behar **irailaren 1era arte**. Gainera, ordurako laborearen hazkuntza zikloa amaitu ez bada, uzta **hilabete gehiago** egon beharko da bildu gabe lurzatiez gainerako lurretan biltzen denetik edo, bestela, laboreak merkaturatzeko heldutasunera iritsi arte.
 - Urte anitzeko lekadunak bildu gabeko eremuetan ezin da aprobetxamendurik eman urtarrilaren 1etik irailaren 1era arte, gutxienez.
 - Gutxienezko neurriak bazterrenak, zerrendak eta uhartenak berak.

– **Espezie usaintsuz bildu gabeko eremuak:**

- Praktika betetzeko, aitortutako gainerako azalera biltzen hasten direnetik gutxienez 2 hilabete gehiago egon behar dute tokian bertan.
- Espezieak: labanda, erromeroa, ezkaia, salbia, ezponda, kamamila eta labandina.
- Gutxieneko neurriak bazterrenak, zerrendak eta uharteenak berak.

4. NEKAZARITZARAKO LOTUTAKO LAGUNTZAK

- Oro har, **gutxieneko azalera** ustiatetik **ha 1** izango da **lehorreko lurretan** eta **0,5 ha lur ureztatueta**n.

4.1. LANDARE JATORRIKO PROTEINEN EKOIZPEN JASANGARRIAREKIN LOTUTAKO LAGUNTZA. PROTEINA PLANA

- Honako laguntza hauek ezarri dira **proteinadun laboreak** lantzen dituzten nekazari-erentzat:
 - Zenbait lekale (**txitxirioa, dilista eta indaba**) lantzeko laguntza.
 - **Gainerako lekaleak** (ilarra, baba, lupinua, zalkea, erua, ailorbea, astailarra, aixkola, alpapa, astorkia, zulla, krotalaria, soja, kakahuetea) lantzeko laguntza.
 - Zenbait lekaleren **hazi ziurtatua (txitxirioa, dilista eta indaba)** lantzeko laguntza.
 - **Gainerako lekaleen hazi ziurtatua** lantzeko laguntza.
- Laguntza mota bat bakarrik laguntza eskatzen den azalera lagungarriko hektareako.
- Zer espezie eta zer barietate lantzen den zehaztu behar da.
- Lekadunak eta gramineoak nahastu daitezke, baina lekadunak nagusi direla.
- Laborea lurrean mantendu behar da honako egoera fenologiko honetara heldu arte:
 - Lekadun aleak: esne itxurako heldutasuna.
 - Bazka lekadunak: loratzen hasi arte.
 - Urte anitzeko lekadunak: urte osoan, lehen urtean eta laborantza amaitzen den urtean izan ezik.
 - Hazi ziurtatuak sortzeko: haziaren heldutasun fisiologikoa.
- **Abereak** lursailean bertan bazkatu daitezke.
- **Ezin da jaso** lotutako laguntzarik **ongarri berdea** sortzeko erabiltzen diren sailen-gatik.
- **Ureztatutako alpapa** landuz gero, nekazaria eskaeran ezartzen den azalerekin bat datorren abere karga daukan abeltzaintzako ustiategi baten titularra izan behar da edo alpapa hornitzeko kontratua eduki behar du abeltzaintzako ustiategi batekin, pentsu fabrikatzaile batekin edo bazka deshidratatzeko enpresa batekin.

- **Hazi ekoizpenean** jardunez gero, kontratua eduki behar da ekoizpen enpresarekin, eta lurzatiek ziurtapenaren gaineko eskumena daukan agintaritzaren onarpena eduki behar dute.
- Intsumoen aplikazioa jasangarria izan behar da elikadura jasangarriaren esparruan.
- Trebola eta beren nahasketak ez dute balio laguntza horretarako.

4.2. AZUKRE ERREMOLATXAREN EKOIZPEN JASANGARRIAREKIN LOTUTAKO LAGUNTZA

- Industriarako azukre erremolatxa lantzen duten nekazariarentzat (**gutxieneko dosia: 100.000 hazi ha-ko**).
- **Barietatea** zehaztu behar da.
- Azukre industriarekin sinatutako hornidura **kontratuaren kopia** aurkeztu behar da, edo hori eskatzeko baimenarena.
- Intsumoen aplikazioa jasangarria izan behar da elikadura jasangarriaren esparruan.

4.3. RAZO BEREZIAK ETA INGURUMEN BALIO HANDIA DAUZKAN OLIBADIAREKIN LOTUTAKO LAGUNTZA

- Honako baldintza hauek betetzen dituen olibadiren bat daukaten nekazariarentzat:
 - NPBrEn EBn edo NEEOn aitortu izana **2018an, 2019an edo 2020an**.
 - SIGPACen **lehorreko** modura sailkatuta egotea.
 - Dentsitatea 100 olibondo/ha edo gutxiago izatea edo sailaren batez besteko malda % 25 edo handiagoa.
 - Dentsitatea gutxienez 30 olibondo/ha izatea.
 - Olibadiren batez besteko adina 10 urtetik gorakoa izatea.
 - **Lurzatiaren azalera 0,1 ha izatea gutxienez eta ustiategian** dirulaguntzarako onartzen den azalera gutxienez **0,5 ha izatea**.
 - Halaber, dirulaguntzarako onartuko dira nazioarteko aintzatespena duten **ehun urtetik gorako olibondoak**, nahiz eta dentsitatearen edo maldaren baldintza ez bete. SIGPACen agertu behar dira.
- Laguntzaren zenbatekoa:
 - **10 hektarea** arte: Aleko zenbatekoaren % **100**.
 - **Gainerakoak**: Aleko zenbatekoaren % **50**.

4.4. DESERTIFIKAZIO-ARRISKUA DUTEN EREMUETAN FRUITU LEHORRAK EKOIZTEN DITUZTENEI LOTUTAKO LAGUNTZA

- Almendro, hurritz eta algarrobo ekoizleentzat. Landaketek honako hauek bete behar dituzte:
 - **80 zuhaitz/ha-ko** gutxieneko dentsitatea almendrondoaren kasuan, **150 zuhaitz/ha-ko hurritzarako** eta 30 algarroborako.

- **Lurzati** bakoitzeko diruz lagundu daitekeen gutxieneko azalera: **0,1 ha** eta 0,5 ha ustiategi bakoitzeko.
- **Lehorrean** landatuta egotea eta **malda > % 10** izatea.

5. ABELTZAINTZARAKO LOTUTAKO LAGUNTZAK ORDAINTZEKO

- Ustiategiko ekoizpen unitate guztien **REGA kodeak** adierazi behar dira (abereak mantentzeko erabiliko diren ekoizpen unitateenak), are erkidegoan erabiltzen **laboreen REGA kodeak ere**.
- Ustiategiaren **titulartasuna eduki behar da** da abereak **hautatu daitezkeen aldian** eta **eskaera aldatzeko aldia amaitu arte**. **Salbuetsita** gelditzen dira aldaketa aldia amaitu aurreko **titulartasun aldaketak**.
- Abeltzaintzako laguntzak direla-eta:
 - a) **Abeltzain gazteak** dira: Gazteentzako laguntza jasotzeko baldintzak betetzen dituztenak.
 - b) **Jardueran hasi diren abeltzainak** dira: Erreserba Nazionalera jotzeko baldintzak betetzen dituztenak.
- **Abere** hautagarriak abere osasunaren arautegian ezartzen denaren arabera **identifikatu eta erregistratu** behar dira.

5.1. ABELTZAINNTZA ESTENTSIBORAKO LOTUTAKO LAGUNTZA: HARAGITARAKO BEHI AZIENDA – BEHI UME-HAZLEAK

- **Haragitarako behi** aziendaren ustiategi estentsiboan titularrentzat. **Ustiategiaren** sailkapena **“estentsiboa”** edo **“erdiestentsiboa”** izan behar da eskaera bakarra aldatzen den egunean.
- **ABIEn** erroldatutako **behi ume-hazleak** izango dira **hautagarriak**, baldintza hauek betez gero:
 - Eskaeraren urteko apirilaren 30aren **aurreko 20 hiletan umea eginda egon behar dute**.
 - **Haragitarako arraza batekoak** edo haragitarako arraza batekin **gurutzatuak** izan behar dira (frisiarrak eta haiekin gurutzatuak eta batez ere esnetarako diren beste arraza batzuetakoak ez), eta haragitarako zekorrek hazteko erabili behar dira.
 - **Urtarrilaren 1ean, apirilaren 30ean eta tarteko beste egun batean** ustiategian **egon behar dira. 3 egun horietan bertan dauden abereak** konputatuko dira.
 - **Jardueran hasten den abeltzain edota gazte batek eskaera bakar batean abeltzaintzarako laguntza lehenengoz eskatzen badu, ustiategian apirilaren 30ean dauden abereak izango dira hautagarriak**. Hala ere, ustiategiaren **titulartasunaren aldaketaren lagapen hartzailea** bada eskaera bakarra aldatzeko aldia amaitu baino lehen, ustiategian **hautatzeko aldian** dauden abereak hartuko dira kontuan, eta **aukerarik onuragarriena** aplikatuko da.
- Aurreko baldintzak (erditzearena ez besten guztiak) betetzen dituzten **txahalak** onartuko dira, baldin eta urtarrilaren 1ean 8 - 36 hilabete bitartekoak badira, **% 15 gehienez**.

- Abereak dauden ustiategiak **REGAn erroldatuta** egon beharko dira sailkapen zootekniko hauetako batekin:
 - “**haragitarako** azienda ugaltzea”.
 - “ekoizpen **mistorako** azienda ugaltzea”.
 - “txahalen hazkuntza”.
- Eskaeraren urteko **urtarrilaren 1ean arraza autoktonoetako abereen liburu genealogikoetan inskribatutako abere hautagarriengatik** aleko zenbatekoaren % **10 gehiago** jasoko da.
- Eskaeraren urtearen aurreko urteko **urriaren 1etik eskaeraren urteko irailaren 30era arte bitartean** egindako **esne emateen edo zuzeneko esne salmenten** aitortpenik edukiz gero, Espainiako **batez besteko esne ekoizpena (6.500 Kg)** edo **egiaztatutako beste bat** erabiliko da laguntza honetarako **gehienez onartuko diren behi ume-hazleen kopurua** zehazteko.

5.2. ZEKORRAK JAIOTZEN DIREN USTIATEGIAN GIZENTZEKO LAGUNTZA

- Laguntza hau **zekorrek jaiotzen diren ustiategian** eta haiek kudeatzen dituzten gizendegi komunitarioetan gizentzen dituzten **behi aziendaren ustiategi estentsibo eta erdi-estentsiboen** titularrentzat dira. **Ustiategiaren** sailkapena “**estentsiboa**” edo “**erdi-estentsiboa**” izan behar da eskaera bakarra aldatzen den egunean.
- ABIEn erroldatutako abelgorriak izango dira **hautagarriak**, baldintza hauek betetz gero:
 - **6 eta 24 hilabete artekoak** izan behar dira.
 - Aurreko urteko **urriaren 1etik** eskaeraren urteko **irailaren 30era bitartean ustiategi onuradunean** (edo gizendegi komunitarioan) gizendu behar dira eta aldi berean hortik **hiltegia edo esportaziora bidali behar dira**.
 - Ustiategian **sartu diren egunetik** hiltegia edo esportaziora **bidali arte gutxienez 90 egun pasatu behar dira**.
 - **Gutxienez 3** abere hautagarri egon behar dira.
- Abereak **dauden ustiategia** haiek **hiltegia edo esportaziora** bidali aurretik egon diren **azkena** izango da. Ustiategia REGAn inskribatuta egon beharko da **sailkapen zootekniko** hauetako batekin:
 - “**haragitarako** azienda ugaltzea”.
 - “**esnetarako** azienda ugaltzea”.
 - “ekoizpen **mistorako** azienda ugaltzea”.
- **Gizendegi komunitarioen** kasuan, sailkapena “**gizentzea edo gizendegia**” izan behar da. Abereak hiltegia edo esportaziora bidali aurretik egon diren azkena izango da.
- **Irteera mugimendua bitarteko ustiategi batera** (tratularia edo elkartzetxe zentroa, REGAn inskribatua) egin bada eta **hortik abereak hiltegia edo esportaziora eramaten badira**, bitarteko ustiategian ezin dira egon **15 egun baino gehiago**.

- **Gizendegi komunitarioen baldintzak:**
 - **Helburua** izan behar da bazkideen behi ume-hazleen **ustiategietan jaiotako zekorrek gizentzea**.
 - Agiri bidez **frogatu** behar da **bazkideak** gizendegi komunitarioko kideak direla.
 - Abereak ekartzen dituzten **bazkide** guztiak **behi ume-hazleen** laguntza edota **esnetarako behien** laguntza **eskatu** behar izan dute.
 - **Laguntza hau bazkideen ustiategietako behiak erditutako abelburu** gizenduen-gatik jasoko da. Gainerakoengatik zekorren **gizentze jasangarrirako laguntza** jaso ahal izango da.

5.3. ZEKORREN GIZENTZE JASANGARRIRAKO LAGUNTZA

- ABIEen erroldatutako abelgorriak izango dira **hautagarriak**, baldintza hauek betez gero:
 - **6 eta 24 hilabete artekoak** izan behar dira.
 - Aurreko urteko **urriaren 1etik** eskaeraren urteko **irailaren 30era bitartean ustiategi** onuraduneari gizendu behar dira eta aldi berean hortik **hiltegia edo esportaziora bidali behar dira**.
 - Ustiategian **sartu diren egunetik** hiltegia edo esportaziora **bidali arte gutxienez 90 egun pasatu behar dira**.
- **Gutxienez 3** abere hautagarri egon behar dira.
- **Gehienez 1.417** abere hautagarri onartuko dira ustiategi bakoitzeko.
- Abereak **dauden ustiategia** haiek **hiltegia edo esportaziora** bidali aurretik egon diren **azkena** izango da. Ustiategia **REGAn inskribatuta** egon beharko da **“Ekoizpena eta ugalketa”** motarekin eta sailkapen zootekniko honekin:
 - “gizenzea edo gizendegia”.
- **Irteera mugimendua bitarteko ustiategi batera** (tratularia edo elkartzetzentroa, REGAn inskribatua) egin bada eta **hortik abereak hiltegia edo esportaziora eramatean badira**, bitarteko ustiategian ezin dira egon **15 egun baino gehiago**.

5.4. BEHI ESNEAREN - ESNETARAKO BEHIEN EKOIZPEN JASANGARRIRAKO LAGUNTZA

- ABIEen erroldatutako **behiak** izango dira **hautagarriak**, baldintza hauek betez gero:
 - **Esnetarako** izan behar dira, frisiar arrazakoak edo horrekin gurutzatuak edo agintaritzak eskudunak zehaztutako esnetarako beste arraza batzuetakoak.
 - **24 hilabete edo gehiago** eduki behar dituzte eskaeraren urteko apirilaren 30ean.
 - **Urtarrilaren 1ean, apirilaren 30ean eta tarteko beste egun batean** ustiategian egon behar dira. **3 egun horietan bertan dauden abereak** konputatuko dira.
- **Jardueran hasten diren abeltzain batek edota gazte batek eskaera bakar batean abeltzaintzarako laguntza lehenengoz eskatzen badu**, ustiategian **apirilaren 30ean dauden abereak izango dira hautagarriak**. Hala ere, ustiategiaren **titular-**

tasunaren aldaketaren lagapen hartzailea bada eskaera bakarra aldatzeko aldia amaitu baino lehen, ustiategian **hautatzeko aldi**an dauden abereak hartuko dira kontuan, eta **aukerarik onuragarriena** aplikatuko da.

- Abereak dauden **ustiategiek** honako baldintza hauek bete beharko dituzte:
 - REGAn erroldatuta egotea **sailkapen zootekniko** hauetako batekin:
 - “**esnetarako** azienda ugaltzea”.
 - “ekoizpen **mistorako** azienda ugaltzea”.
 - “txahalen hazkuntza”.
 - Eskaeraren urtearen aurreko urteko **urriaren 1etik eskaeraren urteko irailaren 30era arte bitartean** gutxienez **6 hilabetez** erosleei esne emateak egiten edo zuzeneko esne salmentan jardun behar izan dute, edo aurreko urtean **zuzeneko salmenten aitortpena** aurkeztu behar izan dute.
- Laguntzaren **zenbatekoa**:
 - **150 aberera arte**: Aleko zenbatekoaren % **100**.
 - **Gainerakoak**, 725era iritsi arte: Aleko zenbatekoaren % **50**.

Mendialdeetako ustiategietan aleko zenbatekoa % **15 handiagoa** izango da.

5.5. HARAGITARAKO ARDI AZIENDA ETA AHUNTZ AZIENDA MODU ESTENTSIBOAN ETA ERDI-ESTENTSIBOAN HAZTEN DITUZTEN ABELTZAINENTZAKO LAGUNTZA

- Hautagarriak izango dira:
 - **Ardi ugaltzaileak**, eskaera aurkezten den urteko urtarrilaren 1ean behar bezala **identifikatuta eta erregistratuta** daudenak.
 - **Jardueran hasten den abeltzain batek edota gazte batek eskaera bakar** batean **abeltzaintzarako laguntza lehenengoz eskatzen badu**, eskaerak aldatzeko aldia amaitzen den egunean baliagarri dagoen azken errolda aitortpenaren arabera ustiategian **dauden abereak** izango dira **hautagarriak**. Hala ere, ustiategiaren **titulartasunaren aldaketaren lagapen hartzailea** bada eskaera bakarra aldatzeko aldia amaitu baino lehen, ustiategian **hautatzeko aldi**an dauden abereak hartuko dira kontuan, eta **aukerarik onuragarriena** aplikatuko da.
 - **Erroldatutako** eme hautagarriak, **gutxienez**:
 - 30 ardi.**
 - 10 ahuntz.**
- Abereak dauden **ustiategiek** honako baldintza hauek bete beharko dituzte:
 - REGAn inskribatuta egon behar dira “**Ekoizpena eta ugalketa**” edo “**Larrea**” motarekin. Lehen motako **sailkapen zooteknikoa** hauetako bat izan behar da:
 - “**haragitarako** azienda ugaltzea”.
 - “ekoizpen **mistorako** azienda ugaltzea”.

- Ustiatetik **irteera mugimenduen atalasea eme hautagarri bakoitzeko 0,6 arkume edo antxume izan behar da gutxienez.**

Eskaeraren aurreko urteko **ekainaren 1etik eskaeraren urteko maiatzaren 31ra arteko aldia** hartuko da kontuan.

Aurreko urteko **ekainaren 1aren ondoren jarduera hasiz gero edo titulartasuna aldatuz gero, gutxieneko atalaseak hainbanatuko dira.**

- **Atalasearen % 50era iritsiz gero, laguntza** eme ugaltzaileen **kopuru proportzionalaren** arabera izango da.
- Eskaeraren urtearen **aurreko urteko urriaren 1etik eskaeraren urteko irailaren 30era arte bitartean** egindako esne emateen edo zuzeneko esne salmenten aitortpenik edukiz gero, Espainiako **batez besteko esne ekoizpena (ardiek 230 litro eta ahuntzek 380 litro)** edo **egiaztatutako beste bat** erabiliko da laguntza honetarako gehienez onartuko diren abelburuen kopurua zehazteko.

5.6. ARDI ESNEAREN ETA AHUNTZ ESNEAREN EKOIZPEN JASANGARRIRAKO LAGUNTZA

- Hautagarriak izango dira:
 - **Ahuntz ugaltzaileak**, eskaera aurkezten den urteko **urtarrilaren 1ean** behar bezala **identifikatuta eta erregistratuta** daudenak.
 - **Jardueran hasten den abeltzain batek edota gazte batek eskaera bakar batean abeltzaintzarako laguntza lehenengoz** eskatzen badu, **eskaerak aldatzeko aldia amaitzen den egunean** baliagarri dagoen azken errolda aitortpenaren arabera **ustiategian dauden abereak izango dira hautagarriak**. Hala ere, ustiategiaren **titulartasunaren aldaketaren lagapen hartzaila** bada eskaera bakarra aldatzeko aldia amaitu baino lehen, ustiategian **hautatzeko aldia** dauden abereak hartuko dira kontuan, eta **aukerarik onuragarriena** aplikatuko da.
 - **Erroldatutako** eme hautagarriak, **gutxienez:**
 - 30 ardi.**
 - 10 ahuntz.**
- Abereak dauden **ustiategiekin** honako baldintza hauek bete beharko dituzte:
 - REGAn erroldatuta egotea **sailkapen zootekniko** hauetako batekin:
 - **“esnetarako** azienda ugaltzea”.
 - **“ekoizpen mistorako** azienda ugaltzea”.
 - **Gutxienez 80 litroko ekoizpena** eduki behar dute **ardi** ugaltzaile bakoitzeko, edo **200 litrokoa ahuntz** ugaltzaile bakoitzeko.

Eskaeraren **aurreko urteko ekainaren 1etik eskaeraren urteko maiatzaren 31ra** bitartean egindako **esne emateak** hartuko dira kontuan. **Esnea zuzenean salduz gero**, eskaeraren **aurreko urtean** egindako salmentak hartuko dira kontuan.

Aurreko urteko **ekainaren 1aren ondoren jarduera hasiz gero** edo titulartasuna **aldatuz gero**, gutxieneko atalaseak hainbanatuko dira.

- **Atalasearen % 50era iritsiz gero, laguntza** eme ugaltzaileen **kopuru proportzionalaren** arabera izango da.

5.7. ARDI AZIENDA ETA AHUNTZ AZIENDA LARREETAN GABE LUGORRIETAN, UZTONDOETAN EDO BARATZE UZTAREN HONDAKINETAN LARRATZEN DITUZTEN ABELTZAINENTZAKO LAGUNTZA

- Dirulaguntzarako onartzen diren **2 Ha-tik gorako larre iraunkorrak** aitortu dituztenek **ezin dute eskatu** laguntza hau. **Halaber**, larre iraunkorren azalera aitortpenaren arabera dirulaguntzarako onartzen diren lurren azaleraren **% 3 baino gehiago** bada, ezin eskatu izango da laguntzarik.
- Honako baldintza hauetako bat bete behar da laguntza honen **onuraduna** izateko:
 - Abereak artzaintzan modura lugorrietako landareez, uztondoez edo baratze uztaren hondakinez bazkatzera eramaten dituzten laborantza lurren edo laborantza sail iraunkorren hektareak aitortu behar dituzte.
 - Beste titular batek aitortutako lurretan idatzizko akordio baten bidez egindako aprobetxamendua aitortu behar dute.
 - Aprobetxamendu honetarako **adjudikazioa** edo **kontzesioa eduki behar dute**.
- **Dirulaguntzarako gehienez onartuko diren abereak**: Biderketa hau egingo da: artzaintza lanak egiten diren lurren azalera (**Ha**) **bider 1,2 ALU/Ha-ko abere karga** (0,1 ALU/ardi-ahuntz).
- Hautagarriak izango dira:
 - **Ahuntz eta ardi ugaltzaileak**, eskaera aurkezten den urteko **urtarrilaren 1ean** behar bezala **identifikatuta eta erregistratuta** daudenak.
- Abereak dauden **ustiategiek** honako baldintza hauek bete beharko dituzte:
 - **REGAn inskribatuta** egon behar dira **“Ekoizpena eta ugalketa”** edo **“Larrea”** motarekin. Lehen motako **sailkapen zooteknikoa** hauetako bat izan behar da:
 - **“haragitarako** azienda ugaltzea”.
 - **“esnetarako** azienda ugaltzea”.
 - **“ekoizpen mistorako** azienda ugaltzea”.

6. NEKAZARI GAZTEENTZAKO ORDAINKETA

- Nekazariarentzat, honako baldintza hauek betez gero:
 - **ABRS jasotzeko eskubidea eduki behar dute (DABR eduki eta aktibatu)**.
 - **ABRS** jasotzeko lehen eskaera aurkezten dutenean 40 urte baino gutxiago eduki behar dituzte.
 - Nekazaritzako jarduera dela-eta Gizarte Segurantzaren erregimenean alta emanda egon behar dute **2021eko** urtarrilaren 1az geroztik (salbuespena: modu sinesgarrian frogatu ahal bada ustiategiaren arduradun jardun dutela Nekaza-

ritzako Gizarte Segurantzaren alta hartu aurretik), eta alta emanda egon behar dute instalatzen den nekazaritza jarduerari dagokion Gizarte Segurantzaren.

- Eskaera bakarra aurkezteko aldia amaitzen den egunean landa garapenerako programaren bateko eremuan lehenengo instalaziorako dirulaguntza ematearen aldeko espedientea eduki behar dute edo, bestela, eskola presatuntzako irizpideak bete behar dituzte eta lan esperientzia eduki behar dute.
- Pertsona juridikoaren kapital sozialean daukaten partaidetzaren ehunekoa **bazkide nagusiak kapital sozialean eta boto eskubideetan daukan partaidetzaren ehuneko bera izan behar da gutxienez.**

B. ABRS ESKUBIDEAK

- Kontsulta: Eskubideen balioari buruzko informazioa Eusko Jaurlaritzaren web orrian eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren web orrian:
 - <https://www3.sede.fega.gob.es/bdcgabcse/inicio/inicioAplicacion.action>
 - <http://www.nekanet.net/OrgPag/Consultaderechos/Default.aspx?ReturnUrl=%2fOrgPag%2fConsultaderechos%2fVista%2fIndex.aspx>.
- Eskubideak lagatzeko tipologia berria, lurrik eta bidesaririk gabe: "LURRIK GABEKO ABRS eskubideen behin betiko lagapena partekatutako titulartasun gisa katalogatutako ustategiei".

C. INGURUABAR AIZUNAK SORTZEA

- **Ez da onartuko ordainketa zuzenik ez bestelako laguntzarik, baldin eta frogatzen bada inguruabar aizunak sortu direla laguntzak lortzeko.**

Oro har:

- **Datuak edo agiriak faltsutzea edo ezkutatzea.**
- **Lurretan beretan kontrolak egitea eragozte.**
- **Eskaera kentzea saiatzeta lurretan beretan kontrola egingo dela edo irregulartasunak daudela jakin ondoren.**
- Ustategiak **modu artifizialean zatitzea** honako helburu hauetako baterako:
 - a) Nekazari aktiboa izan beharra betetzea, hau da, nekazariaren diru sarreraren guztien % 25 gutxienez nekazaritzaren bidez lortzen direla frogatzea.
 - b) Jasangarritasunerako errentarako oinarritzko laguntzaren ordainketei murrizteko aplikatzea eragozte edo aplikazioa minimizatzea.
 - c) Jasangarritasunerako errenta osatzeko birbanaketako laguntzaren onura maximizatzea.
 - d) Zenbait ekoregimenetan, lotutako laguntzatan edo landa garapenerako esku hartzetan azalaren edo aberen araberrako degresibitatea aplikatzea eragozte edo aplikazioa minimizatzea.

- Errentak esleitzeko araubidean dagoen entitate batean (SZ, OE, TPE) **bazkide berria sartzea** nekazari aktiboa izan beharra betetzeko (alta GSan edo nekazaritzako jardueraren errenten ehunekoa diru sarrera guztietan).

Lur eremuetarako laguntzak

- **Larreetan nekazaritzako jarduera** egiten dela egiaztatzeko aurkeztutako **frogak faltsuak** direlako edo **iruzurra** egin delako zantzuak egotea.
- Ustiategiaren **ekoizpenarekin** zerikusirik ez daukan **lur eremuren bat edo jarduera bat** aitortzea.
- Bikoiztasunen kontrolean antzematea aitortzaile batek baliagarri ez daukan aitortzea aurkeztu duela.
- Lurzatiaren **edukitza** egiaztatzeko aurkeztutako frogak faltsuak direlako edo iruzurra egin delako zantzuak egotea.
- Jarraiko bi kanpainatan **behar baino azalera handiagoa aitortzea**.
- Nekazaritzako jarduera egiten ez den eremuak aitortu direlako zantzuak egotea.
- Artzaintza aitortzea, eskatzailearen ustiatetik abereekin egiten ez denean.
- Eskaera bakarra aurkezten den autonomia erkidegoa ez beste batzuetan **mantentze lanak** baino egin ez diren lur eremuak aitortzea.
- Herri lurak erabiltzeko kontzesioaren ebazpenean ageri den aprobetxamenduaren adjudikazioduna ez izatea laguntza eskaeran lur horiek aitortzen duen pertsona.
- Ekoizleek **abere trukeak egitea** urtaroka, larreetan nekazaritzako jarduera egiten dutela frogatzeko behar den abere kargara iristeko. Ekoizleak ahaideak izatea edo haien artean sozietate harremana egotea arriskugarritzat joko da.
- Ekorregimen baten onuraduna izatea ABRS jasotzen ez den (edo proportzio oso txikian jasotzen den) lur eremu batengatik.

60.000 €-tik gorako ABRS ordainketak murriztea

- Nekazariak ez dute jasoko ordainketak ez murrizteko onura, baldin eta frogatzen bada 2018ko ekainaren 1etik aurrera inguruabar aizunak sortu dituztela aipaturako murrizketa ez aplikatzeko, esaterako **ustiategia zatitzea** edo **bazkide aizunak sartzea** lotutako entitate baimendu batean murrizketa banaka kalkulatzeko entitateko kide bakoitzari.

Jasangarritasunerako errenta osatzeko birbanaketako laguntza

- Nekazariak ez dute jasoko inolako onurarik laguntza kalkulatzeko, baldin eta frogatzen bada 2018ko ekainaren 1etik aurrera inguruabar aizunak sortu dituztela lakuntzaren zenbatekoa gehitzeko, esaterako **ustiategia zatitzea** edo **bazkide aizunak sartzea** lotutako entitate baimendu batean murrizketa banaka kalkulatzeko entitateko kide bakoitzari.

Gazteentzako laguntza edo Erreserba Nazionaleko esleipena:

- **Frogatzea egiazkoak ez diren nekazari gazteak** sartu direla nortasun juridikoa duten nekazaritzako enpresa bateko **bazkide edo kide** modura, helburu bakarra enpresak ordainketa jaso ahal izatea dela.
- Nekazaritzako Gizarte Segurantza **alta** ematea eta eskaera baietsi ondoren **baja** ematea.
- **Titulartasuna nekazari gazte bati edo jardueran hasi den nekazari bati pasatzea** eta gero, erreserba esleitu edo DPB eskubideak ordainsaririk gabe emanez gero, **atzera ere lehengo titularrari eskualdatzea.**
- **Laguntza eskubideak modu artifizialean bikoiztea** era honetara: titularrak eskubide batzuk lagatzen dizkio hirugarren bati, lurrik gabe, eta beste alde batetik lurrak edo abeltzaintzako ustiatagia REGA kidearekin lagatzen du, eta lurren edo abeltzaintzako ustiategiaren titular berriak beste eskubide batzuk eskatzen dizkio Erreserba Nazioanalari.

Abeltzaintzako laguntzak

- **Abere trukeak ekoizleen artean.**
- **Aldakuntza neurrigabeak** ugaltzaileen erroldan ustiategiko urteko batez besteko abeltzaintza jarduerarekin alderatuta.

D. BALDINTZAPEKOTASUN INDARTUA

- Ustiategiko lurzati guztietan **bete behar dira nahitaez.**
- Lurrak kudeatzeko legezko baldintzak, lurrak nekazaritza eta ingurumen egoera egokian mantendu beharra, eta baldintza sozialak (2025eko urtarrilaren 1ean jarriko dira indarrean).

D.1. LURRAK NEKAZARITZA ETA INGURUMEN EGOERA EGOKIAN MANTENDU BEHARRA

- **NIBO-1. Larreak: EAEko** mailan.
- **NIBO-2. Hezegunean eta zohikaztegiak babestea.**
 - Debekatuta sasitzak kentzea.
 - Artzaintzan, gehieneko abere kargak bete behar dira.
- **NIBO-3.** Debekatuta dago sasitzak eta landare hondakinak erretzea baimenik gabe.
- **NIBO-4. Ibai ertzetan babes zerrendak ezartzea.**
 - 5 metro zabalerako lur zerrenda bat laboratu gabe, baina landaretza ereinarekin edo berezkoarekin. Lur horietan **debekatuta** egongo da **ongarriak eta produktu fitosanitarioak** aplikatzea.
 - Lurzatiko gainerako lurretatik bereizi behar dira.
 - Lur zerrenda hauek SIGPACeko geruza egokian agertu behar dira.

- **NIBO-5. Laborantza kudeatzea.**
 - Malda ertaineko eremuetan (% 10 edo gehiago) debekatuta dago malda handieneko norabidean laboratzea, **1 ha-ko edo gutxiagoko azalera** duten esparruetan izan ezik, edo, **zurezko laboreen kasuan**, edozein puntutan maldarekiko zeharkako noranzkoan gutxieneko **neurria 100 m-tik beherakoa** duten esparru irregularretan izan ezik.
- **NIBO-6. Lurzoruaren gutxieneko estaldura.**
 - Neguko labore belarkarak:
 - Bilketatik irailaren 1era arte ezin da lurra irauli, ez eta bertikalean laboratu ere.
 - Zurezko laboreak:
 - Malda % 10 edo handiagoa bada, gutxienez metro bateko zabalerako landare estaldura mantentzea (ereina edo berezkoa) maldari handieneko norabidea zeharkatzen duten kaleetan urritik martxora bitartean (biak barne).
 - Lugarriak:
 - Lurra lantzeko jarduera tradizionalak egitea, ahalik gutxien laboratzea edo lurren gainean estaldura egokia mantentzea.
- **NIBO-7. Laboreak txandakatzea eta dibertsifikatzea.**
 - Bi praktika hauetako bat aukeratu ahal izango da:
 - Laboreen txandakatzea: Ustiategiko esparru guztiek gutxienez hiru urtean behin aldatu beharko dute laboreak.
 - Laboreak **dibertsifikatzea**:
 - Ustiategiko laborantza lurren azalera 10 hektareatik gorakoa eta 30 hektarea edo gutxiagokoa.
 - 2 labore. Nagusiak ezin du hartu laborantza lurren azaleraren % 75 baino gehiago.
 - Ustiategiko laborantza lurren azalera 30 hektarea baino gehiago:
 - 3 labore. Nagusiak ezin du hartu laborantza lurren azaleraren % 75 baino gehiago, eta bi handienek batera ezin dute hartu azaleraren % 95 baino gehiago.
 - **Salbuespenak: 10 ha edo gutxiagoko** labore-lurak dituzten ustiategiak, **ekologikoak edo bihurtze-prozesuan daudenak, gehienez ere hogeita hamar hektareako nekazaritza-azalera aitortua dutenak** eta honako hauek dituztenak:
 - Belar edo bestelako bazka, lekadun, lugarri edo erabilera horien konbinaziorako erabiltzen diren laborantza-lurren % 75 baino gehiago.
 - Nekazaritza-azalera onargarriaren % 75 baino gehiago larre iraunkorrak, belarrak edo bestelako bazkak izan daitezke, edo erabilera horien konbinazioa.

- **NIBO-8. Paisaiako elementuak mantentzea, heskaiak eta zuhaitzak mozteko debekua hegaztiak hazteko eta ugaltzeko denboraldian**
 - Paisaiako elementuak mantentzea.
 - Debekatuta dago heskaiak eta zuhaitzak mozteko hegaztien umatzeko eta ugaltzeko aldian.
- **NIBO-9. Larre iraunkor ahulak bihurtzeko edo goldatzeko debekua.**
- **NIBO-10. Ongarritze jasagarria.**
 - Ongarritzea landa koadernoan erregistratu behar da.
 - Ekoizpen unitate bakoitza ongarrizko plana eduki behar bada.
 - Mindak tokian bertan aplikatu behar dira, eta simaurra laborantza sailetan lurperatu behar dira.

D.2. BALDINTZAZKOTASUN SOZIALA

NPB laguntzen onuradunek bete behar dituzten betebeharren sistema, aplikatu beharreko lan eta enplegu baldintzekin edo enplegu emaileak horretarako ezarritako egintza juridikoetatik eratorritako betebeharrekin lotuta.

BERRITASUN NABARMENENAK

- Nekazaritza-jardueran hasten diren nekazariak ezin izango dituzte beren eskubideak laga nekazari aktiboaren baldintza betetzen dutela justifikatzen duten kanpainara arte.
- Eskubideak lagatzeko tipologia berria, lurrik eta bidesaririk gabe: "LURRIK GABEKO ABRS eskubideen behin betiko lagapena partekatutako titulartasun gisa katalogatutako ustiategiei"
- Biodibertsitatea laborantza lurretan eta laborantza iraunkorrean Ekorregimena: Urte anitzeko lekadunak bildu gabeko eremuetan ezin da aprobetxamendurik eman urtarrilaren 1etik irailaren 1era arte, gutxienez.
- Produktu ekologikoen ekoizpen ekologikoari eta etiketatzeari buruzko 2018/848 (EB) Erregelamenduaren arabera ziurtatutako azalerak edo bihurtze-prozesuan daudenak salbuetsita egongo dira 1,3,4,5,6 eta 7 NIBO betetzetik.
- Ustiategiak gehienez ere hogeita hamar hektareako nekazaritza-azalera aitortua duten nekazariak salbuetsita geratuko dira BCAM 7 arauaren eskakizunen kontrolatik.

OROIGARRI

- Eskubide **guztiak** eskatuko dira. Ezin izango dira txandakatu.
- Eskabidea aldatzen den egunean Nekazaritzako Gizarte Segurantzaren norberaren konturako edo autonomoagatiko (nekazaritza-jardueragatiko) alta emanda ez dauden **nekazari berriek**, nekazaritza-jardueratik datozen guztizko diru-sarreraren % 25 izan beharko dute gutxienez, eskaera egin eta hurrengo 2. zergaldian berandueenez, eta ezin izango dute aurreko urtean 5.000 euro baino gutxiago jaso izanaren salbuespenari heldu, ezta nekazari aktiboaren betekizuna Nekazaritzako Gizarte Segurantzaren alta emanda justifikatu ere.
- Laborantza-lurren ekorerregimenen ondorioetarako **ureztatutzat** hartzen diren lurrak 2026. kanpainan **ureztatzen direnak** dira, edo, eskatzaileak hala **nahi izanez** gero, **221** SigPac eremuan **eragina dutenak** (lur ureztatuak **2023, 2024 edo 2025ean**).
- Eskatutako laguntzen ordainketak jaso ahal izateko, hala badagokio, eskatzaileak egunean izan behar ditu Ogasuneko eta Gizarte Segurantzako zerga-betebeharrak.
- Mendi publikoen azalerako nekazaritza-jarduera animaliak lekualdatzeko gidak daudela egiaztatu ondoren baliozkotuko da.